



Ingurumenarekiko konpromisoa

UPV/EHU-ko Ekonomi eta Enpresa Fakultatearen iharduera nagusia prestakuntza eta ikerkuntza da.

Ingurumen kudeaketaren sistema abiaraztea da gure lerro estrategikoetako bat.

Garapen iraunkorrekina eta eskolako kideak ingurumenarekiko sentikor bihurtzearekin daukagun konpromisoaren alde beste urrats bat ematea da. Oinarrizko printzipioak hiru dira:

- Aplikagarriak diren ingurumen gaietako arau guztiak betetzea,
- Kutsaduraren prebentzioa eta
- Egiten diren jardueren etengabeko hobekuntza.

Printzipio horiek betetzeko helburu hauek ditugu, hain zuzen ere:

- Gero eta hondakin gutxiago sortzea, horretarako birziklatu eta berrerabiliko dira ahal den guztietan, eta baliabide naturalak, lehengaiak eta energia behar bezala erabiltzea.
- Lantoki honetako langileak eta ikasleak ingurumen gaiei buruz prestatu eta kontzientziaztea, baita haien jardueretan gure ingurumen arloko politika errespetatu behar dutela jakinaraztea ere.
- Ingurumen arloan etengabeko hobekuntza erdiestea (ingurumen gaietako legeria betetzea baino zerbait gehiago da hori). Horretarako, alderdi nagusiak hobetzeko helburuak, jomugak eta ingurumen programak definitu eta berraztertuko ditugu urtero.

Compromiso medioambiental

La Facultad de Economía y Empresa de la UPV/EHU es un Centro cuya actividad principal es la formación e investigación.

La puesta en marcha de un sistema de gestión medioambiental se corresponde con el despliegue de una de nuestras líneas estratégicas definidas.

Se trata de un nuevo paso en nuestro compromiso con el desarrollo sostenible y la sensibilización de nuestra comunidad hacia el medio ambiente. Se inspira en tres principios básicos:

- El cumplimiento de toda la normativa medioambiental aplicable.
- La prevención de la contaminación y
- La mejora continua de las actividades desarrolladas.

Para llevar a la práctica estos principios nos proponemos en concreto:

- Reducir sistemáticamente la generación de residuos, reciclándolos y reutilizándolos siempre que sea posible, así como utilizar de manera eficiente los recursos naturales, materias primas y energía.
- Formar y concienciar al personal que trabaja en este centro y al alumnado sobre la cuestión medioambiental, haciéndoles partícipes del respeto de nuestra política medioambiental en todas sus actividades.
- Lograr la mejora ambiental continua, más allá del cumplimiento de la legislación medioambiental, para lo cual definiremos y revisaremos anualmente objetivos, metas y programas medioambientales para mejorar los principales aspectos.



Bilbao, a 8 de abril de 2017

Fdo: Jon Barrutia Guenaga
(Decano)